

# AZPEITIKO UDALAK ELEGUNE SORTU DU, ENPRESEN HIZKUNTZA GESTIOA HOBETZEKO ZENTRO TEKNIKOA



- ▶ **Euskalgintzaren eremuan Azpeitiak, Euskara Patronatuaren bitartez, bide berriak jorrotzen aitzindari dela erakutsi du beste behin ere. Oraingoan, lan munduan euskara planak garatzeko enpresei beharrezkoak zaizkien tresna eta baliabide egokiak esku-eskura jartzera bideratu ditu bere ahaleginak, Elegune zentro teknikoak martxan jarri.**
- ▶ **Patronatuaren ekarpenak Eusko Jauriaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Euskaltzaindiaren eta ADEGI enpresari elkarrearen babes osoa jaso du, eta ordezkariak hitz onak baino ez zituzten izan egitasmoaren aurkezpenean.**
- ▶ **Azpeitiko Udalak dagoeneko aurkeztu die Elegune herriko 12 enpresa handienei eta denek baiezkoa eman dute parte hartzeko proposamenaren aurrean. Zerrenda ondorengo enpresek osatzen dute: Biele, Zubiola, Danona, Sammic, Corrugados Azpeitia, Grumal-Pemec, Altuna y Uria, Grual Hidráulica, LanMobel, Antzibar, Sarralle eta Astigarraga Kit Linek, hain zuzen.**

Elegune zentroaren sorrerak euskalgintzan nabarmentzen diren hainbat ahots ekarri ditu Azpeitira berriki. Aurkezpen ekitaldian txiki geratu zen Udaletxeko batzar aretoa, sekulako babesa jaso baitu egitasmoak bai erakundeen aldetik, bai enpresen aldetik. Besteak beste, Elegune izan zuten hizpide Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarririkak, diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Mahakide izan zituzten Azpeitiko alkatea, Julian Eizmendi, eta bidelagun izaten ari diren enpresetako ordezkari asko. Guztiek ekimena txalotu zuten eta arduradunak zoriondu.

## Hitzetatik ekintzetara

Andres Urrutia euskaltzainburuaren aburuz, garaia iritsi zaigu euskara "oztopo eta behaztopa izan beharrean, baliabide eta komunikabidea izateko. Herriak aspalditik erakutsi zigun hori. Guri dagokigu, oraingo honetan, han-hor-hemenka predikatzen dihardugun hori praktikan jartzea". Elegunereren sorrera "lan eredugarritzat" jo zuen bere aldetik Patxi Baztarririkak. Botila erdi hutsaren edo erdi betearen dialektika gogoko ez duela aipatu arren, orain arte egindakoa baino gehiago dagoela egiteko aitor-tu zuen eta erronka horri erantzuteko modu bat lan munduan euskararen normalizazioa garatzea dela gaineratu. Sailburuordearen hitzetan, "Biele eta Zubiolaren esperientziak salbuespenak dira" eta ez dugu lortuko gaue-tik egunera lan mundua euskalduntzea baina uste du "etorkizuna neurri handi batean elebitasunarena eta eleantitasunarena" izango dela eta horretan enpresak berak gizarteari ekarpen garrantzitsua egin diezaiokeela. Ildo beretik mintzatu zen diputatu nagusia. Txabarrik Azpeitiko Udala eta

Euskara Patronatua zoriondu zituen egiten ari diren lanagatik. "Hizkuntza politikaz –esan zuen– arduratzen direnak oso kezkatuta daude erabileraz, esaten dute hor dagoela gilitza eta

horretan asmatu beharko genukeela hurrengo urteotan geure hizkuntza zaharrari etorkizuna eskaini nahi badiogu. Badute Azpeitian nora begiratu".



**LUIS JUARISTI**  
Biele, S.A.

**"GURETZAT EZ-NATURALA LITZATEKEENA DA BILERAK ERDARAZ EGITEA"**

"Biele enpresa barruan harremanak euskaraz izaten ditugu. Ez da inposaketa bat, natural ateratzen zaigu. Ez-naturala litzatekeena guretzat da bilerak, esaterako, erderaz egitea. Ia 200 langile gara eta tartean badaude erdalduak eta denak euskaraz ikasten ari dira. Ez dute atzean geratu nahi. Euskara da gure hizkuntza jaiotzatik eta euskara hori indartu nahi dugu".



**ANTON ELORZA**  
LanMobel Kop. Elk.

**"LEHEN ERRONKA BARNE KOMUNIKAZIOAN EUSKARA ERABILTZEA IZANGO DA"**

"Elegunereren proposamenera atxikitzea guretzat ematen dugun lehen urratsa da. Errazagoa da geure kasa aritzea baino. Bestela ez genuke asmatuko. Lehen erronka barne komunikazioan euskara erabilteza izango da. Orain, iragarki-taulako mezuak elebitan ditugu baina hortik aurrera ezer askorik ez. Espero dugu Elegunereren laguntzarekin zerbait egitea eta ez bakarrik gogoak jami".



**M. ANGELES AMENABAR**  
Zubiola Kop. Elk.

**"2010-EAN EUSKARA, ZUBIOLA KOOPERATIBAKO LAN HIZKUNTZA IZANGO DA"**

"Definitu genuen estrategiaren arabera, 2010ean euskara, Zubiola Kooperatibako lan hizkuntza izango da. Ondorioz, barne harremanak, ahozkoak eta idatzizkoak, formalak eta informalak euskaraz izango dira. 2010ean euskara, Zubiola Kooperatibako zerbitzu hizkuntza gisa, ahalik eta gehien erabiliko da. Horretarako, Euskara Patronatura hurbildu ginen eta enpresa erakundeek euskararen erabilera prozesuan txertatzeko, eta aholkularitza kualifikatu baten laguntza izan zezaten, talde tekniko bat osatzaren aukeraren berri eman ziguten".



**JOSUNE LAZKANO**  
Antzibar

**"DIAGNOSI FASEAN GAUDE ORAIN"**

"Antzibaren diagnosi fasean gaude orain. Kontzientziak esaten digu zerbait egin beharra daukagula baina lan asko ikusten dugu. Guk bulegoan denok euskaraz dakigu eta euskara erabiltzen dugu, baina bileretan ere. Beste kontu bat da kanpo komunikazioa. Inprimaki gehienak elebitan ditugu baina eskutitz formal bat bidali behar badugu, adibidez, normalean erdarara jotzen dugu eta horretan, uste dut, beharko dugula laguntza gehien".

## Zer da Elegune?

Azpeitiko Udalak, Euskara Patronatuaren bitartez, herriko enpresei hizkuntza-gestiorik egokiena lortzen laguntzeko sortu den zentro teknikoak.

Elegunek zerbitzu profesionala eta integrala eskaintzen du, eta enpresetan euskarari dagokion tokia eta funtzionaltasuna aurkitzeko, laguntza eta baliabideak esku-eskura jartzea da bere eginkizuna.

Elegunek Eusko Jauriaritzak sortutako LanHitz programa garatzen lagunduko die enpresei, programa hori praktikan jartzen duen lehenengo herria delarik Azpeitia.

### Enpresen babesa

Elegunek Azpeitiko enpresa guztietan eskainiko ditu bere zerbitzuak, baita txiki eta ertainetan ere, horiek baitituzte askotan zailtasunik handienak hizkuntza gestioaren planifikazioa gauzatzeko.

Momentuz, 12 enpresa handienei aurkeztu zaie egitasmoa eta euren babesa eman dute. Enpresa horietan guztira 2.100 langilek egiten dute lan, hau da, Azpeitiko industria arloko langilearen %51k.



**J. MARI GARATE eta PATXI AGIRREZABAL**  
Danona Kop. Elk.

**"KONTURATU GARA ITZULI EZ, SORTU EGIN BEHAR DUGULA EUSKARAZ"**

"Momentu honetan gestio eredu aldaketa prozesu batean sartuak gaude eta euskara plana indar gutxiarekin daukagu baina indartzeko asmoa dugu. Duela bost urte hasi ginen euskarari helten. Guk laguntza behar dugu itzulketetarako, adibidez. Orain arte, piezak ziren "costados", "cuerpos"... eta orain dira "alboak" eta "gorputzak". Bide paralelo bat egin dugu baina konturatu gara itzuli ez, euskaraz sortu behar dugula. Balio erantsi bat baino, guretzat euskara hizkuntza eskubide baten betetzea da".